



Andres Urrutia, Jean Haritzelhar eta Max Brisson, atzoko omenaldiaren une batean. MONIKA DEL VALLE / ARGIAZKI PRESS

«Bi estatuen mugaz gaindi» egindako lana eskertu dio Euskaltzaindiak Haritzelharri

Euskararen Akademiak hitzarmena sinatu du EEPekin, Ipar Euskal Herrian euskara sustatzeko

ZUBEROA ITURBURU

Bilbo
Euskaltzaindiak liburu batekin omendu du Jean Haritzelhar euskaltzainburu ohia. «Helburu argia du liburuak, zuriitzuli, neurritxiki eta labur batean, liburu gisa, zuk zeuk Akademiari eskuzabal eman diozuna», esan zion atzoko omenaldian Andres Urrutia euskaltzainburuak. Hau da, esaera zaharrek dioen moduan, «emok emaile-ari, egio egileari». Urrutiaren ustez, Haritzelharrek osatu duen katea luzea bezain sendoa da Euskaltzaindiaren historian, betidanik eskaini baitizkio Akademiari bere ahala eta lana.

Euskaltzaindiak Bilbon duen egoitzan egin zuten atzo ekitaldia, 24 urtez euskaltzainburorde eta hamasei urtez euskaltzainburu izan dena omentzeko. Euskaltzainekin eta beste hainbat erakundetako ordezkariekin batera, bertara bildu ziren Xabier Azanza Euskararen Nafar Institutuko zuzendaria, Miren Dobaran eta Erramun Osa Eusko Jaurilaritzako Hizkuntz Politikarako Sailburuordetzako ordezkariak, Josune Ariztondo Bizkaiko Kultura diputatua eta Paulino Luesma, Espainiako Gobernuko EAE duen ordezkaria, besteak beste.

Horiekin batera Euskararen Erakunde Publikoko (EEP) hain-

bat kide, Marc Cabane Pirinio Atlantikoetako prefeta, Gerard Guillonnet Frantziako kontsula eta Jakes Abeberri Hautetsien Kontseiluko kideak parte hartu zuten.

EEP eta Euskaltzaindiak hitzarmena sinatu zuten ekitaldian bertan, horregatik ordezkari horiek han egotea. Haritzelharrek berak ituna izan du present. Harentzako «ohorea doblea da», omenaldia hitzarmena izenpetzearekin batera egin dutelako.

Akademian egindako ibilbidea eta lorpenak berrikusi eta erakundeekin izan duen harremana ere ekarri du gogora. «Horiek guztiak lortu ditu Euskaltzaindiak bere jokamolde profesionala erakutsiz», Haritzelharren ustez. Eskerrak emanez bukatu zuen hitzaldia.

Hura omentzeko osatu duten liburuak Iker sailaren barruan argitaratu dute eta 33 euskaltzainen idazlanak biltzen ditu. Bakoitzak bere arlotik egin ekarpenak dira. Ohikoa denez, omendutako pertsonari buruz, Haritzelhar kasu honetan, atarian hitz egin du.

EUSKARA «INDARTZEKO» URRATSA. Jose Luis Lizundia euskaltzainak eta Beñat Oihartzabal euskaltzainburordeak ere —Haritzelharren omenezko liburuaren arduradunek— hitza hartu zuten. Ipar Euskal Herrian hark euskararen alde egindako lana goraiatu zuen Oihartzabalek: «Jeanek bazekien bi estatuen mugaz gaindi lotua zela euskararen ezagutza». Baina, ezagutza hori «ez da euskaldunek nahi luketena oraindik, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan

euskarak ez baitu ofizialtasunik», gehitu zuen.

Hala ere, urratsak eginen ari direla deritzo: «EEP eratuz, Fran-

tziaren gerizpea dugu, eta pozik gaude Ipar Euskal Herriko erakunde publikoen presentzia dugulako». Horregatik, hitzarmena sina-

«Lorpen guztiak eskuratu ditu Euskaltzaindiak bere jokamolde profesionala erakutsiz»

JEAN HARITZELHAR
EUSKALTZAINBURU OHIA

«Euskararen ezagutza oraindik ez da euskaldunek nahi luketena, Ipar Euskal Herrian ez baita ofiziala»

BEÑAT OIHARTZABAL
EUSKALTZAINBURUORDEA

tzea baino «bide hoberik ez dago Jeanen lana omentzeko».

«Hitzarmen hori euskara Ipar Euskal Herrian indartzeko eta bultzatzeko urrats berria da», Andres Urrutiaren ustez, eta abagune berriak ekarriko ditu euskararentzat. «Horretarako sortu da Euskararen Erakunde Publikoa, eta bertara bildu dituzte Frantziako botere publikoek euskarari buruzko ahalak». Hitzarmena bestelako pausoa da Euskaltzaindia goi mailako erakunde moduan aitortzeko. «Jada egina da hori Euskal Autonomia Erkidegoan nahiz Nafarroakoan, eta oraintxe dator Iparraldearen orena».

Max Brisson EEParen lehendakaria ere pozik da hitzarmenarekin. «Bere egitekoa euskararen garapena da», esan zuen. «Beste eragile batzuek ere euskara bermatzearen garrantziaz kontzientzia hartuko dutela espero dut».

BERRIAK gonbidatzen zaitu harpidedunentzat 30 sarrera ditugu



30* sarrera

* sarrerak urtarrilaren 30erako dira

KEN ZAZPI

konzertuan

Bilboko Arriaga antzokian, urtarrilaren 29 eta 30ean, 20:00etan.

deitu: 943-30 43 45

astegunetan: 08:30-20:30 / larunbatetan: 09:00-13:00

Aukera ezazu, **BIZI euskaraz berria**